

## AUTOEBALUAZIO PROZEDURAK: Azken ebaluazioa.

### ERIZAINNTZA OTORRINOLARINGOLOGIKOA

#### Test-erako azken proba, A eredia:

- 1) Eustakio tronparen funtzio nagusia:
  - a) Erdiko belarria aireztatzea da
  - b) Mukia ekoiztea da
  - c) Soinua bidaiatzea da
  - d) Denak egokiak dira
  
- 2) Ezko tapoien sintomen artean aukeratu okerra dena:
  - a) Hipoakusia
  - b) Akufenoak
  - c) Mina
  - d) Autofonia
  
- 3) Gorreriak diagnostikatzeko froga:
  - a) Audiometria da
  - b) Akumentria da
  - c) Audiometria eta akumetria dira
  - d) Parakusia da
  
- 4) Sindrome bertiginosen sintoma:
  - a) Ibiltzeko oreka falta da
  - b) Egoera errotatoria da
  - c) Krisi neurovegetatiboa da
  - d) Denak egokiak dira
  
- 5) Aukeratu esaldi egokia:
  - a) Estapedektomia eta estapedotomia sinonimoak dira
  - b) Tinpanoplastia eta miringoplastia sinonimoak dira
  - c) Mastoidektomia eta miringektomia sinonimoak dira
  - d) Denak okerrak dira
  
- 6) Aurreko rinoskopia egiteko materialen artean aukeratu okerra dena:
  - a) Fotoforoa
  - b) Depresorea
  - c) Rinoskopioa
  - d) Denak egokiak dira

- 7) Rinoplastia egin ostean zein jarreratan mantendu behar da?
- a) Buruz gorantz ( $0^\circ$  tan)
  - b) Semi-fowler
  - c) Fowler
  - d) Fowler altua
- 8) Faringea. Aukeratu esaldi okerra:
- a) Faringea 3 zatiz bananduta dago: rinofaringea, orofaringea eta laringofaringea
  - b) Faringearen patologiafaringitisak, amigdalitisak eta adenoiditisak dira
  - c) Faringean amigdalak kokatzen dira
  - d) Faringearen loturak sudurra eta esofagoa dira
- 9) Laringea. Aukeratu esaldi okerra:
- a) Laringea supraglotiko eta subglotikoa da
  - b) Laringea ahotsaren arduraduna da
  - c) Laringea kartilago elastikoz osatuta dago (aritenoida eta epiglotisa)
  - d) Laringea kartilago hialinoz osatuta dago (tiroidea eta krikoida)
- 10) Laringektomiak:
- a) Partzialak edo supraglotikoak dira
  - b) Osoak edo subglotikoak dira
  - c) Zabalduak dira
  - d) Denak egokiak dira

## Egia ala gezurra aukeratzeko azken proba, A eredua:

- 1) **Eustakioaren tronpa belarriaren atzean kokatzen da.**
- 2) **Soinua erdiko belarritik barnekora leiho obalaren bitartez transmititzen da.**
- 3) **Ezko tapoien sintomak mina, akufenoak eta azkura dira.**
- 4) **Ezko tapoia ateratzeko ondorio posibleak bertigoa, mina, infekzioa edo nistagmoak dira.**
- 5) **Timpanometria froga subjektiboa da.**
- 6) **Akumetria froga subjektiboa da.**
- 7) **Soinu guztiek belarriari kalte egin diezaiokete.**
- 8) **Bertigoak bi motakoak dira: zentralak eta periferikoak.**
- 9) **Mastoiditisaren sintomak sukarra, mina, nekea eta belarria atzeratzea dira.**
- 10) **Mastoiditisaren konplikazioen artean miningitisa eta gorreria daude.**
- 11) **Rinoskopiak bi motakoak dira: aurrekoak eta atzekoak.**
- 12) **Sudurraren funtzio bakarra usaimena da.**
- 13) **Rinitisak akutuak eta kronikoak dira.**
- 14) **Parotiditisak beti kutsakorak dira.**
- 15) **Amigdalitisak infekzio birikoak eta bakterianoak dira.**
- 16) **Amigdalitis motaren diagnostiko zehatza birage-frogaren bitartez egiten da.**
- 17) **Laringitisaren tratamenduan hezetasuna bermatzea da.**
- 18) **Trakeotomiak eta trakeostomiak sinonimoak dira.**

## **Kasu klinikoak, azken proba, A eredia:**

Osasun Zentro batean ingratutako 65 urteko emakume bat besteengandik urrundu egiten da eta mesfidantza erakusten du. Ez dauka harremanik beste egoiliarrekin eta entzumen galera bat duenaren susmoa daukazu.

1. Deskribatu entzumen galera kuantifikatzeko egin beharko zenukeen proba diagnostikoa.
2. Entzumen galeraren diagnostiko kualitatiboa egiteko akumetria erabiltzen da, aipatu ezagutzen dituzun akumetria-probak.
3. Otoesklerosis izatekotan, aipatu egin beharko zenizkion tratamenduak.

## ERANTZUNAK (A eredua):

### Test erako proba:

1) **A**

2) **C**

3) **C**

4) **D**

5) **B**

6) **B**

7) **B**

8) **D**

9) **A**

10) **D**

### Egia ala gezurra:

1) **Egia**

2) **Egia**

3) **Gezurra**

4) **Egia**

5) **Gezurra**

6) **Egia**

7) **Gezurra**

8) **Egia**

9) **Gezurra**

10) **Egia**

11) **Egia**

12) **Gezurra**

13) **Egia**

14) **Gezurra**

15) **Egia**

16) **Egia**

17) **Egia**

18) **Gezurra**

### **Kasu klinikoak, azken proba:**

1. Deskribatu entzumen galera kuantifikatzeko egin beharko zenukeen proba diagnostikoa.  
**Audiometria.**  
Barneko belarriaren zahartze prozesuagatik gertatzen den entzumen galera (presbiakusiak) kuantifikatzeko erabiltzen den proba da. Proba honekin eroopen-bidea eta hezurrezko-bideak aztertzen dira aurikularrak eta perkutore bat erabiliz.  
Pazienteak aurikularrak jarrita dituela soinu desberdinak entzungo ditu eta entzuteari uzten dionean eskua altxatuko du. Horrela aztertzailerak soinu bakoitzeko entzumen atalasea zehaztuko du, entzumen galera kuantifikatuz.
2. Entzumen galeraren diagnostiko kualitatiboa egiteko akumetria erabiltzen da, aipatu ezagutzen dituzun akumetria-probak.  
Rinne-ren proba, Weber-en proba eta Schawabach-en proba.
3. Otoesklerosis izatekotan, aipatu egin beharko zenizkion tratamenduak.
  - Tratamendu farmakologikoak
  - Audifonoak eta koklearen inplanteak
  - Estapedektomia